

## «Berdintasuna lortzeko, neurriak hartu eta baliabideak jartzea da instituzioen betebeharra»

Hernaniko Udaleko emakume zinegotziek Martxoaren 8arekin egin dute bat. Gaur ekintzak egingo dira bailaran.

URUMEA MARTXOAK 8

Agerraldia egin zuten asteartean Hernaniko Udalean ordezkari diren emakume zinegotziek, Martxoaren 8ko deialdiekin bat egiteko.

Carmen Adarraga parkea aukeratu zuten, horretarako; «emakume eta gizonen arteko berdintasunaren bidean eman beharreko pausoen adibide den tokian, Hernaniko emakume baten izena duen lehenengo eremu publikoan. Benetako berdintasuna lortzeko, adierazpenak egiteaz haratago, neurri zehatzak hartu eta baliabideak jartzea baita instituzioen betebeharra».

**Hainbat konpromiso adostuta** Adierazpen horiek egiteaz gain, Udalean ordezkari izateko emakume zinegotziek adostutako konpromisoen berri ere eman zuten. Ondorengoak aipatu zituzten: «Udal kontratazio publikoan klausula sozial eta genero klausulak txertatzeko hasitako lan-



Carmen Adarragaren monolitoa aukeratu zuten zinegotziek, agerraldirako.

ketarekin jarraitzea, batez ere, sektore feminizatuetan; arlo publiko nahiz pribatuan udalerriko zaintzen errealitatearen azterketa egitea, genero ikuspegitik, eta neurriak martxan jartzea, besteak beste, zaintzen aitortza soziala eta gizon eta emakumeen erantzunkidetasuna bultzatzeko; udalerriko emakumeek egindako ekarpena balorean jartzeko memoria historikoaren lanketarekin jarraitzea eta baliabideak bermatzea; Jabetze Eskolak, Kulturarteko Plaza Feminista nahiz bestelako espazioak bultzatzea, ahalduz ere ikuspegi feministatik; gazteei zuzendutako politketan, emakume gaz-

teen ahalduz ere bultzatzea eta hezkuntza komunitatearekin batera, hezkuntza sexu-afektiboa eta ikasketen aukeraketan neska eta mutilen arteko berdintasuna lantzerantz zuzendutako jarduerak jasotzea; desgaitasun bat duten emakumeen egoera ikusarazi eta hauen errealitatea aldatzeko pausuak ematea; egoera zaurgarrietan dauden emakumeen beharrei erantzutea; eta herrian berdintasunaren alde lanean diharduten pertsona zein kolektibo feministen parte hartzea bermatu eta iritziak konstante hartzea».

Horregatik guztiagatik, Martxoaren 8rako Mugimendu

Feministak egin dituen mobilizazioekin bat egin eta parte hartzeko deia luzatu zuten.

**Txirritan eta Gaztelekuan, zita** Bestalde, gaur 09:30etan brotze moreak egingo dituzte Erefñotzuko Txirrita eskolan, iganderako.

Hernaniko Gaztelekuan, berriz, beturreko moreen dinamika landuko dute, eta bihar, *Ahal dugu* jolasa probatuko dute.

**Goizuetan izena, bazkarirako** Asteburuan bailara osoan izango dira ekintza gehiago. Goizuetan, igandean egingo da azkenean bazkaria, Oxeguardan, eta bihar arte eman daiteke izena kafetegian. **K**



## Gazte eta adinekoen saioa, atzeratuta

ASTIGARRAGA ASTIGARRAGA EHUNTZEN

Aldaketa izan da Astigarraga ehuntzen egitasmoan, eta gaur ez da saiorik izango. Hurrengo martxoaren 10ean egingo da *Do it yourself*, lorezaintzari buruzkoa, eta hurrena, 12an, sexualitatearen ingurukoa.

## 6 partidu, musean

HERNANI XALAPARTA

Gaurkoan 12 bikote ariko dira Xalapartako mus txapelketan: Jurgi-Pablito/Jose Miguel-Lola; Iñaki-Martin/Ruiz-Ruiz; Jesus-Joxe Mari/J-J; Koldo-Bokata/Txema-Goyo; Ibai-Huizi/Peli-Ramon; eta Manu-Xabi/Gorrotza II-Gorrotza III.

## Finalerdiak gaur, Txantxangorri

HERNANI TXANTXANGORRI

Txantxangorriko mus txapelketan, finalerdiak jokatu egingo dituzte gaur lau bikotek: Esnal-Arregi/Mauri-Txampi eta Javi-Ander/J.Leon-Bittor. Banaka, berriz, errepesakoak jokatu egingo dituzte Bixente Goñik Pablo Ruiz kontra eta Arkaitz Goñik Javier Oscozen kontra.

## Bi gai, batzarrean

HERNANI EH BILDU

Herri batzarra deitu du EH Bilduk gaur, 19:30etan Bilgunean. Batetik, EAEko hauteskondeei buruz hitz egingo da, eta bestetik, Udalgintzaz.

## Literaturarekin jolasean, txikiak

HERNANI LITERATURA

Mintzoan Kux-Kux egitasmoaren saio berri bat egingo da gaur, 17:30etan liburutegian, 3-5 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzenduta. Ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasekin entretentzeko aukera izango da.

## Hileroko berria aurkeztuko da, pizza-potearekin

Kontrakantxa Gaztetxean, 19:00etan jarri dute hitzordua. Bihar, Euskal Herriko Gazte Sozialisten Topagunea aurkeztuko da, jangela soziala irekitzearekin batera, eta etzi, hitzaldia izango da.

HERNANI KONTRAKANTXA

Hainbat hitzordu jarri dira aste honeta Kontrakantxa Gaztetxean. Aurrenekoa, gaur. Arratsaldeko 19:00etan hasita, gaztetxe berriak jasotzen dituen *Hilerokoa* argitalpen bereziaren ale berria aurkeztuko dute, piz-

za-poteak lagunduta, eta herriar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.

Bihar, bestalde, apirilaren 9tik 13ra Legutition egingo diren Euskal Herriko Gazte Sozialisten Topagunearen aurkezpena egingo dute 20:30etan, GKS eta IAK eta ondoren, jantoki soziala irekiko

da. Gainera, gaztetxe bertsolariak ariko da afaria girotzen.

**Gaztetxea irekita, «aisialdirako espazioa izan dezagun»**

Horrez gain, larunbaterako hitzordu bikoitza jarri dute. Hasitako, goizeko 11:00etan hitzaldia

izango da, feminismo proletarioaren erronken inguruan.

Arratsaldean, berriz, gaztetxea irekita egomgo dela jakinarazi dute, «gazteok harreman-tzeko eta aisialdirako espazioa izan dezagun, txotx denboraldiak inposatutako festa eruditik aparte». **K**

Sagardo naturala

ALBERRO SAGARDOTEGIA  
Tel. 943 55 00 19

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTZALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

AKELENEA

Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Menua  
3 hasierako  
Arraia  
Haragia  
Postrea, ogia, kafea

27€ (BEZ barne, edaria aparte)  
Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

**GAUR** Ipar-mendebaldeko haizea indartu egingo da, eta euria egingo du, erruz. Arratsaldean zaparradak tartekatuagoak botako ditu. Tenperaturak behera egingo du. **Min.11° / Max.16°**

**BIHAR** Zerua oso lainotuta egongo da eta zaparradak botako ditu; baita kazkabarra ere, tarteka. Haizeak indartsu joko du eta hoztu egingo du. Elur-maila 800 metrora jaitsiko da. **Min.6° / Max.10°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**  
**LAGUNTZAILEAK**  
Hernaniko Udala  
Astigarragako Udala  
Aizoa Udala  
Gozietako Udala  
ARANOKO UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**  
EUSKAL LEHIAKETA  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
EUSKAL LEHIAKETA

## Argazki murala egiteko izena, gaur arte

Martxoaren 12, 14, 17 eta 25eko argazki saioetan tokia dago, eta izen-ematea gaur bukatuko da, Berdintasun Sailean.

**ASTIGARRAGA** EMAKUMEON PLAZA

Udalak herritarrei hainbat bileretan jakinarazi zien moduan, Emakumeon Plaza berri egingo da, «izaerarik gabeko espazio publiko degradatu bat berreskuratu» eta «Emakumeon Plazari dagokion nortasuna» emateko.

Horretarako, besteak beste, emakume irudiak dituen beirazko mural bat egingo da. Mura hori, Nagore Legarreta argazkilari hernaniarrak eta Astigarragako emakume taldeek osatuko dute, eta hain zuzen, argazki horiek egiteko saio irekiak antolatu dira.

Lau egunetako bost saiotan, tokia

Argazki saio horietan parte hartzeko izen-ematea gaur itxiko da. Berdintasun Sailera jo behar da, 678 384 952 telefonora deituta edo [berdintasuna@astigarraga.eus](mailto:berdintasuna@astigarraga.eus) helbidera idatzita.

Ondorengo saioetan dago tokia: martxoaren 12an 10:30etan eta 17:30etan, martxoaren 14an 10:30etan, martxoaren 17an 17:30etan eta martxoaren 27an 10:30etan. **K**

## Patriarkatuak ohean duen eraginaz hitzaldia, Damontik

Kultur etxean hitz egingo du gaur Paola Damonti, genero gaietan adituak, arratsaldeko 18:00etan hasita.

**ASTIGARRAGA** BERDINTASUNA

Hitzaldia emango du gaur kultur etxean, arratsaldeko 18:00etan, Paola Damonti, genero gaietan adituak. *La brecha orgásmica* izango du hizpide, gaztelaniaz izango den saioan. Berdintasun Sailak antolatu du, eta haur zaintza zerbitzua izango da.

Emakumearen plazerra baldintzapean

Pasa den urtarrean Iruñean izan zen Damonti, hitzaldi hau bera emateko. Emakume Etxean zuen ematekoa, baina Iruñeko Udalak betoa jarri zionez, Katakrak liburutegian eman zuen.

Orduan bezala, gaurkoan ere azalduko du patriarkatuaren eragina oheraino iristen dela, eta emakumearen plazerra baldintzatzen duela. Besteak beste, Damontik dio «kulpa emakumei lotuta da sentimendua» dela, eta «kontrolerako elementu indartsua. Oinarria ez dago biologian, gizartean baizik». **K**



Petritegin, iazko Sagardo Txapeleketako irabazleen sagardotegian aurkeztu da aurtengoa. Argazkia: Maialen Andres.

## Oialume Zar eta Petritegiren arteko lehia gaur, Sagardoaren Txapelketa hasteko

Aurtengoa X. edizioa izango da. Ligaxka apirilaren 18ra arte jokatu da; finalurrekoak maiatzaren 2ra arte, eta finala, maiatzaren 9an.

**HERNANI** ERREMONTA

Petritegin, iazko Sagardoaren Txapelketako irabazleek ordezkatzen zuten sagardotegian aurkeztu zen astearten X. Sagardoaren Txapelketa, eta gaur jokatu dute aurreneko partidua, lau erremontistek. Galaretan, 16:00etan hasita jokatu diren partiduetan bigarrena izango da, Oialume Zarreko Aldabe eta Barrenetxea IV eta Petritegiko Matxin III eta Azpiroz aurrez aurre jarriko dituenak.

**Puntu negatiboak eta ligaxkak, aurtan ere**

Zortzi sagardotegik hartuko dute parte aurtan, bi multzotan sailkatuta. A multzoan, aipatutako ez gain, Altzuetak, Juanenea eta

Agirrezabalarekin; eta Setienek, Ansa II eta Larrañagarekin.

B taldean ariko dira Bereziartua, Urriza eta Arruarterekin; Larre Gain, Ezkurra II eta Zubirrekin; Gurutzeta, Goikoetxea eta Endikarekin; eta Gaztañaga, Segurola eta Ionekin, A taldean.

Ligaxka gaur hasiko da, eta apirilaren 18an bukatu. Astearte eta ostegunetan jokatu dira partidua. Iaz bezala, irabazleak 4 puntu bilduko ditu, 36 eta 39 tantoren artean egiten dituenak 2, 32 eta 35 tanto artean egiten dituenak puntu bat, 26 eta 31 punturen artean egiten dituenak 0, eta hortik behera egiten dituenak puntu negatiboa jasoko du, iaz bezala.

Ligaxkako fasean, talde barenak aurreneko bi sailkatuak

izango dira finalurrekoetara pasako direnak. Lau bikote horiek finalurrekoak jokatu dituzte, denek denek kontra, apirilaren 23tik maiatzaren 2ra bitartean.

**Finala irabazteaz gain, sari gehiago**

Fase honetako aurreneko bi sailkatuak izango dira finala jokatu dutenak, maiatzaren 9an. Berdinketarik suertatzen bada bi bikoteraren artean, bi horien arteko partidua irabazi duenak egingo du aurrera, eta berdinketa hiru bikoteraren artekoa bada, tanteoa hartuko da kontuan, ligaxkan bezala.

Finala irabazi eta txapela janzten dutenak ez dira izango, hala ere, sariak jasoko dituztenak bakarrik. Aurrelari eta atzelari onenei ere trofeoak emango zaizkie, egindako tantoei galdutako tantoak kenduta, tanteo onenak kontuan hartuta. **K**

## BeatEroak saioetarako, aukera oraindik

**HERNANI** GAZTELEKUA

Rap musika eta euskera lantzeko proiektu pilotua da BeatEroak, 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendua, eta Hernaniko Gaztelekuan jarriko da martxan, besteak beste. Martxoaren 13an Telmo Trenor beatmakerrarekin rap abestiak eta bideoak egiteko aukera izango dute izena ematen dutenek; aste honetara ere luzatu da izen-ematea. Era berean, prestaketa saio batzuk egingo dira Gaztelekuan, bihar eta martxoaren 10, 11 eta 12an, 18:00etan.

## Pala ikastaroa, 10-14 urte artekoentzat

**HERNANI** IRAKURRALDIK

Ostiraletan Tilosetan 8 urtetik gorako haurrek pala probatzeko aukera izango dute aurtengoa. Hain zuzen, Hernaniko Palisten elkarteak, 16:45etik 17:45era. Baina, horrez gain, pala ikastaroak antolatu ditu astearte edota ostegunetan, LH 5 eta 6. mailakoentzat 16:45etatik 17:45etara eta DBH 1 eta 2. mailakoentzat 15:45etatik 16:45etara, kiroldegian. Martxotik ekainera izango dira saioak eta izena eman behar da lehenbailehen: [hernanikopalistak@gmail.com](mailto:hernanikopalistak@gmail.com) edo 670 827 254.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IV. URTEURRENA

**Martin Etxebarria Izagirre**

*Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik.*

**ETXEKOAK**

Hernani, 2020ko martxoaren 5ean

## IRAGARKI MERKEAK

**Pelukera bila gabilta** Goiz Eguzki jubilatua egoitza. Kontratu merkantila. **Idatzi: goizeguzki@euskalnet.net** edo **deitu: 943 55 10 32 / 670 415 133**

**Egurrezko etxea alokagari iratxeko parke erresidentzian.** Jardina eta barbakoarekin.

Igerilekua, taberna, frontoia, tenis pista etb. komunitarioak. **Deitu: 670 415 133**

**Denda batean langile bila gabilta Hernanin.** Ezinbesteko baldintzak euskeraz jakitea, hernaniarra izatea eta emakumea. **Deitu: 618 694 678** edo **whatsapp.**

**60 urteko emakume euskalduna alokatzeko pisu bila Hernanin.** Nominak eta informak dituenak. 2 gelakoa eta 650€ gehienez. **Deitu: 688 640 381**

**Astigarragako sagardotegi batean kamarer baten bila gabilta.** Urte osoko lana.

**Email: landepartamendua@gmail.com**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**